# TENOFOVIR DISOPROXIL®

## ZER DA ETA ZERTARAKO ERABILTZEN DA?

Birusen kontrako agentea da eta B hepatitisaren birusak edota giza immunoeskasiaren birusak (GIB) eragindako infekzioaren tratamenduan erabiltzen da.

## NOLA KONTSERBATU BEHAR DA?

Giro-tenperaturan kontserbatu behar da (ez 30ºC-tik gora).

## NOLA HARTZEN DA?

Jakiekin batera hartu behar dira konprimituak. Ordu berean hartu behar dira beti.

## ZER EGIN DOSI BAT HARTZEA AHAZTUZ GERO?

Hartzeko ohiko ordua izan denetik, 12 orduko tartearen barruan denean, ahalik eta arinen hartu behar da Tenofovir, janariarekin batera; ondoren, hartzeko ohiko pauta bete behar da. 12 ordutik gora pasatu badira eta ia hurrengo dosia hartzeko ordua bada, ez da aurreko dosia hartu behar; honelakoetan, hurrengoa hartu eta ohiko pauta bete behar da aurrerantzean.

Tenofovir hartu eta ordubete pasatu aurretik botaka eginez gero, beste konprimitu bat hartu behar da. Tenofovir hartuta, ordubetetik gora pasatu eta botaka eginez gero, ez dago zertan beste dosirik hartu.

## ZEINTZUK DIRA TRATAMENDUAN AGER DAITEZKEEN ALBO-ONDORIO OHIKOENAK?

Ez dira zertan agertu, baina zeintzuk diren jakin behar da, ezer nabarituz gero mediku edo farmazialariari jakinarazteko:

Beherakoa, goragaleak, gorakoak, flatulentzia, zorabioak (medikamentua hartuta, erreakzioa nolakoa den jakin behar da ibilgailu edo makinariarekin ibili aurretik, zorabioa eragin dezakeelako), abdomeneko mina, buruko mina, larruazal-erupzioa, nekea eta giltzurrun-alterazioak, gutxiagotan bada ere.

## ¿QUÉ ES Y PARA QUÉ SE UTILIZA?

Agente antiviral utilizado para el tratamiento de la infección por el virus de la hepatitis B y/o virus de la inmunodeficiencia humana (VIH).

## ¿CÓMO SE DEBE CONSERVAR?

Conservar a temperatura ambiente (no superior a 30ºC).

## ¿CÓMO SE ADMINISTRA?

Los comprimidos deben tomarse con alimentos. Mantenga siempre el mismo horario.

## ¿QUÉ HACER SI SE OLVIDA UNA DOSIS?

Si se olvida de tomar una dosis de Tenofovir en el plazo de 12 horas desde la hora normal de administración, debe tomar Tenofovir lo antes posible con alimentos, y continuar su pauta habitual de administración. Si pasan más de 12 horas y es casi la hora de su siguiente dosis, no debe tomar la dosis omitida y simplemente debe continuar la pauta habitual de administración.

Si vomita en el plazo de 1 hora después de tomar Tenofovir, debe tomar otro comprimido. Si vomita más de 1 hora después de tomar Tenofovir, no es necesario que tome otra dosis.

## ¿CUÁLES SON LOS EFECTOS ADVERSOS MÁS FRECUENTES QUE PUEDEN APARECER DURANTE EL TRATAMIENTO?

No significa que vaya a padecerlos todos, pero debe conocerlos para informar al médico o farmacéutico si los padece:

Los efectos adversos más frecuentes son diarrea, náuseas, vómitos, flatulencia, mareos (debe saber cómo reacciona usted a este medicamento antes de conducir vehículos o maquinaria, pues puede producir mareo), diarrea, dolor abdominal dolor de cabeza, erupción cutánea, cansancio y, en menor medida, alteraciones renales.

## OHARRAK

Zenbait medikamentuk interferentzia egin dezakete tenofovirren eraginean. Aurretik zure mediku edo farmazialariarekin kontsultatu gabe, ez hartu beste medikamentu, osagarri dietetiko edo produktu naturalik. Ugaltzeko adineko emakumeek metodo antikontzeptibo eraginkorra erabili behar dute tratamendu-aldian. Tenofovir bidezko tratamendua hartzeak ez du lortzen B hepatitisaren birusa beste pertsona batzuei kutsatzeko arriskua murriztea; beraz, prebentzio-neurri egokiak hartu behar dira.

Tratamendua eteteak gaixotasunak okerrera egitea eragin dezake (hepatitisa areagotzea). Medikuak hala agindu ezean, ez zaio hartzeari utzi behar. Laktosa monohidratoa dauka osagaien artean.

## AHOLKUAK

Alkoholdun edariek eragina izan dezakete zenbait medikamentuekin batera hartuta; ondorio nahigabeak edo arriskutsuak ere sorrarazi dezakete.

Urgentziazko egoera edo kirurgia arin baten aurrean (dentista, adibidez), hartzen ari zaren medikamentu guztien berri eman behar duzu. Larrialdi Zerbitzura joan edo ospitaleratu beharrean egonez gero, aldean eroan behar duzu medikazioa.

Umeek ez ikusteko eta ez hartzeko moduan gorde behar dituzu medikamentuak. Ez da medikamentua hartu behar iraungitze-data gaindituz gero (ontzian adierazitako hilabetearen azken egunetik aurrera). Medikamentuak soberan badituzu, ez gorde etxean. Itzuli mesedez Farmazia Zerbitzuari. Medikamentuak ez dira hustubidetik edo zaborrontzira bota behar.

Informazio-orri hau ez da medikamentuaren argibideen ordezkotzat hartu behar; tratamenduan zehar nabaritzen den edozein sintomaren berri eman behar zaio medikuari edo farmazilariari, behar diren neurriak har ditzan horrek.

## OBSERVACIONES

Ciertos medicamentos pueden interferir con el efecto de tenofovir. No tome ningún otro medicamento, suplemento dietético o producto natural sin consultar antes con su médico o farmacéutico. Las mujeres en edad fértil deben utilizar un método anticonceptivo eficaz durante el tratamiento. El tratamiento con tenofovir no ha demostrado disminuir el riesgo de contagio del virus de la hepatitis B a otras personas, por lo que éstas deben tomar las medidas de prevención adecuadas.

La interrupción del tratamiento puede agravar su enfermedad (exacerbación de la hepatitis). Nunca deje de tomarlo a no ser que se lo indique su médico. Contiene lactosa monohidrato como excipiente.

## CONSEJOS

Las bebidas alcohólicas pueden interaccionar con algunos medicamentos y producir efectos no deseados o incluso peligrosos.

En cualquier situación de urgencia o cirugía leve (por ejemplo el dentista) es necesario informar al médico de todos los medicamentos que está tomando. Si acude a un servicio de urgencias o ha de ser ingresado en un hospital, lleve consigo la medicación.

Mantenga sus medicamentos fuera de la vista y del alcance de los niños. No utilice su medicamento una vez superada su fecha de caducidad (el último día del mes indicado en el envase). Si le sobran medicamentos, no los guarde en su casa. Devuélvalos por favor al servicio de farmacia. Los medicamentos no se deben tirar por los desagües ni a la basura.

Esta hoja informativa no sustituye al prospecto, siempre hay que notificar al médico ó farmacéutico cualquier síntoma que se observe durante el tratamiento para que éste tome las precauciones adecuadas.